

Kanalak

Gure produktua saltzeko interneten eta supermerkatuetan salduko dugu. Interneten bidez saltzeko Amazon enpresarekin kontratu bat egingo dugu, plataforma horretan saldu ahal izateko.

Lehenik eta behin gure produktua ezagutzera emateko, publizitate kanpainak egingo ditugu eta horrez gain, supermerkatuko aldizkarian aterako da gure produktua.

Alde batetik, Amazon plataformatik salduko dugu. Amazonen saldu ahal izateko haiekin kontaktatu behar dugu, horretarako mezu bat bidali behar diegu gure enpresaren datu guztiekin.

Produktuari buruzko informazio guztia argitaratu behar dugu, bidalketa baldintzak zehatz jarritz. Gure enpresak nola kudeatuko dituen produktuak amazonen zehaztu behar dugu. Horrez gain, bidaltze gastuak jarri behar ditugu gure bezeroentzat.

Amazonen ekartzen duen abantaila, beste enpresa batzuekin lehia sortzea da.

Beste aldetik, supermerkatu batzuetan ere salduko dugu gure produktua. Supermarkatuarekin kontaktuan jarri behar gara eta haiek gure produktua onartu behar dute. Supermerkatuetan saltzeko, baldintzak bete behar ditu, hala nola, barra kodea izan eta norma guztiak bete behar ditu.